Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

ZUZENBIDE FAKULTATEA
FACULTAD DE DERECHO

JUSTIZIA SOZIALAREN ALDEKO KLINIKA JURIDIKOA
JSKJ CJJS UPV EHU
CLÍNICA JURÍDICA POR LA JUSTICIA SOCIAL

# ZUZENDARITZA KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA / ACTA DE REUNIÓN DEL CONSEJO DE DIRECCIÓN

**Data**: 2017ko ekainaren 6a
**Ordua:** 15:30
**Tokia**: Zuzenbide Fakultateko Batzar Aretoa.
**Bideokonferentzia**: Justo Garate Aretoa (Leioa, Gelategia I, 3. Solairua)

**Fecha:** 6 de junio de 2017
**Hora**: 15:30
**Lugar**: Sala de Juntas Facultad de Derecho.
**Videoconferencia**: Sala Justo Gárate (Leioa, Aulario I, 3ª planta)

## AZTERGAIAK

**1**. 2016/17 ikasturtearen azterketa.
**2**. Zuzendaritza kontseiluaren berritzea.
**3**. 2017/18 ikasturtearen diseinu eta jardueren plana.
**4**. 2017/18 ikasturterako ikasleen aukeraketa.
**5**. Galde-eskeak.

## ORDEN DEL DÍA

**1.** Balance curso 2016/2017
**2.** Renovación del Consejo de Dirección.
**3.** Diseño y plan de actividades para el curso 2017/2018.
**4.** Selección del alumnado para el curso 2017/2018.
**5.** Ruegos y preguntas

## EZTABAIDAK ETA ERABAKIAK:

### 1. 2016/17 ikasturtearen azterketa.

Maggy Barrerek, JSKJaren zuzendariak, eta Juana Goizuetak, Zuzendari Delegatuak, 2016/17 ikasturtean zehar egindako jardueren berri eman dute, Zuzendaritza Kontseiluaren aurreko bileraren ostean burututakoak (urtarrila-ekaina) nabarmenduz.

Klinika Juridikoaren lehen jarduera-urtea izanik, garatu eta burututako jarduera-plana zabala eta aberatsa izan dela nabarmendu da. Alabaina, era berean, programa egituratu eta aurrera eramateko hainbat zailtasun egon direla azpimarratu da. Era berean, nabarmendu da aurrez ezarritako helburu batzuk ez direla, agian, nahi bezain ondo erdietsi.

## DELIBERACIONES Y ACUERDOS:

### 1. Balance curso 2016/2017.

Maggy Barrere y Juana Goizueta, Directora y Directora Delegada de la CJJS respectivamente, toman la palabra para ofrecer el resumen de las actividades realizadas a lo largo del curso 2016/17, con especial atención a las desarrolladas tras la anterior reunión del Consejo de Dirección (enero-junio).

Siendo éste el primer año de actividad de la CJJS, el Consejo de Dirección ha valorado positivamente la variedad y calidad de las actividades desarrolladas. No obstante, también se señalan ciertas dificultades, así como ciertos objetivos que podrían no haber sido alcanzados todo lo satisfactoriamente que hubiéramos deseado.

Batetik, gizarte eragileekiko eta elkarteekiko harremanak eta atxikimendua sakondu beharra azpimarratu da. Bestetik, JSKJan GALa edo MALa egiten ari diren ikasleei jarraipena egiteko eta arreta eskaintzeko protokoloak hobetu beharra dagoela adierazi da. Azkenik, Klinika Juridikoa osatzen duten kideen prestakuntzari dagokionez, oinarri teoriko zein metodologikoetan sakontzen jarraitzeko premia nabarmendu da.

Finantziazioari dagokionez, lehen hilabeteetan izandako zailtasunak gogora ekarri ondoren, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzarekin sinatu berri den akordioaren berri eman da. Horren arabera, 2020. urtera arte bermatuko lirateke hainbat jarduera burutzeko oinarrizko diru-funtsak. Bileraren bigarren atalean eman da proiektu horren berri zehatzago.

Azkenik, gogorarazi zen Zuzendaritza Kontseiluaren kideen atxikimenduaren ezinbestekotasuna. Klinika Juridikoak jada hainbat konpromiso hartuak ditu bai gizarte-eragileekin, bai ikasleekin eta baita Errektoreordetzarekin ere. Horiei arduraz erantzuteko, eta bereziki Klinika Juridikoak berak dituen helburuak erdietsi ahal izateko, behar-beharrezko da Zuzendaritza Kontseiluko kideek modu aktibo eta iraunkorrean har dezaten parte antolatutako ekintzetan eta, era berean, ekintza horiek programatu eta aurrera eramateko ardurak ere guztion artean modu egokian banatzea.

## 2. Zuzendaritza kontseiluaren berritzea.

JSKJaren zuzendariak jakinarazi du Carmen Agoues Kontseilukideak erreleboa eskatu duela Zuzendaritz a Kontseiluan, hurrengo hilabeteetan izango dituen ardurek eta zereginek nekez utziko baitiote aukera Klinika Juridikoaren jarduereetan nahi bezainbesteko konpromisoz eta iraunkortasunez parte hartzeko.
JSKJaren zuzendaritzak, Carmen Agoues irakaslearen lana eskertu ondoren, Ana Leturia irakaslea proposatu du Kontseilukide izendatua izan dadin. Kontseilukide guztiek berretsi dute Zuzendariaren eskertzea, eta aho batez onartu dute Ana Leturia Kontseilukide

Por un lado, se ha señalado la necesidad de ahondar en la relación con entidades y agentes sociales, para facilitar que su participación resulte lo más fructífera posible. Por otro lado, se ha observado la necesidad de mejorar el protocolo de atención y seguimiento del alumnado que desarrolla sus TFG y TFM en la CJJS. Igualmente, se ha insistido en la importancia de ahondar en la formación teórica y metodológica de los miembros de la clínica.

Con respecto a la situación presupuestaria, aun cuando el arranque del curso resultó complicado debido a la limitada disponibilidad económica, la dirección de la CJJS informa de la firma de un convenio de colaboración con el Vicerrectorado de Innovación, Compromiso Social y Acción Cultural, que garantizaría una financiación relativamente estable para la realización de ciertas actividades hasta el 2020. En la segunda parte de la reunión se informó más detalladamente acerca del citado convenio.

Finalmente, se insistió en el compromiso adquirido por la clínica tanto con el alumnado, como con los agentes y entidades sociales, y el vicerrectorado. Ello requiere necesariamente la implicación activa del conjunto de personas que constituyen el Consejo de Dirección, no solo como participantes regulares en las actividades, sino también como colaboradores en su programación y desarrollo.

## 2. Renovación del Consejo de Dirección.

La directora de la CJJS informa de que la profesora Carmen Agoues, integrante del Consejo de Dirección, ha solicitado que sea relevada en el cargo, debido a que las numerosas responsabilidades a las que debe hacer frente impiden participar en las actividades de la clínica con la regularidad y el compromiso que ella desearía.
La dirección de la CJJS, tras agradecer la labor desempeñada por la profesora Carmen Agoues a lo largo de estos meses, propone el nombramiento de la profesora Ana Leturia para ocupar la vacante creada en el Consejo de Dirección. Las personas que forman parte del Consejo se sumaron al agradecimiento expresado por la directora, y acordaron por unanimidad proponer a la Junta de Facultad el

izendatu dadin proposatzea. Izendapen-proposamena Zuzenbide Fakultateko Batzarrera eramango da, Fakultate-batzarrak ondo baderitzo, izendapena onetsi dezan.

## 3. 2017/18 ikasturtearen diseinu eta jardueren plana.

Aztergai honen inguruan, lehenik eta behin, Juana Goizueta Zuzendari Delegatuak Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzarekin sinatutako akordioaren inguruko xehetasunak eman ditu. Jarraian, Itziar Alkorta eta Joseba Ezeizari eman die hitza, haiek baitira Errektoreordetzaren babesarekin JSKJak garatuko duen Justizia Soziala-Lab berrikuntza-proiektuaren koordinatzaile.

Itziar Alkortak eta Joseba Ezeizak ekintza-programaren dokumentua banatu eta azaldu dute (dokumentua akta honi erantsita jaso da). Era berean, jakinarazi dute zein izango diren proiektuan aurreikusitako ekintzak bideratzeko ardura izango duten Kontseilukideak. Azkenik, hainbat zehaztapen erantsi dituzte atal ekonomikoaren inguruan.

Ekintza-plana garatzen hasi ahal izateko, mintegi monografikoa egitea proposatu dute proiektuaren koordinatzaileek. Aho batez onartu da mintegi hori ekainaren 15etik uztailaren 15era bitarteko epean egitea, aurrerago zehaztuko den egunean.

## 4. 2017/18 ikasturterako ikasleen aukeraketa.

2017/18 ikasturtean ikasleentzako plaza gehiago egotea aurreikusten da.

Alde batetik, hainbat ikasleri egingo zaie gonbitea Ana Leturiak, Juan Aldazek eta Leire Imazek zuzenduko dituzten berrikuntza-proiektuetako talde eragileetan arduradun parte har dezaten.

Bestetik, 10 ikasleri emango zaie aukera practicuma, Gradu Amaierako Lana zein Master Amaierako Lana JSKJan egin ahal izan dezaten.

nombramiento de Ana Leturia como vocal del Consejo de Dirección de la CJJS.

## 3. Diseño y plan de actividades para el curso 2017/2018.

En relación con este punto, Juana Goizueta, Directora Delegada de la CJJS, toma la palabra para exponer al Consejo los términos del convenio firmado recientemente con Vicerrectorado de Innovación, Compromiso Social y Acción Cultural, al que se había hecho mención al exponer el balance de actividades del curso. Tras ello, cede la palabra a Itziar Alkorta y Joseba Ezeiza, en calidad de coordinadores del proyecto de innovación Justizia Soziala-Lab que da soporte a dicho convenio.

Itziar Alkorta y Joseba Ezeiza exponen el programa de actividades que estructuran el proyecto Justizia Sozial-Lab (se adjunta al acta el documento-resumen del proyecto). Igualmente, informan de las responsabilidades adquiridas por diversos miembros del Consejo de Dirección. Finalmente, añaden algunas aclaraciones relativas a cuestiones presupuestarias.
Se considera que para la puesta en marcha del proyecto sería conveniente la realización de un seminario monográfico. Se acuerda que dicho seminario se desarrolle en el periodo que se extiende entre el 15 de junio y el 15 de julio, en fecha a concretar.

## 4. Selección del alumnado para el curso 2017/2018.

De cara al curso 2017/18 se acuerda ampliar la oferta de plazas para el alumnado.

Por un lado, se informa de que se invitará a un número restringido de estudiantes a formar parte de los equipos encargados de llevar a cabo los proyectos de innovación docentes dirigidos por Ana Leturia, Juan Aldaz y Leire Imaz.

Por otro lado, se acuerda ofrecer 10 nuevas plazas para la realización de TFG, Practicum o TFM en la Clínica Jurídica.

Finalmente, se informa de que está previsto ofrecer 30 plazas para alumnado de segundo

Azkenik, bigarren eta hirugarren ikasturteetako 30 ikasleri emango zaie aukera Juan Aldazek eta Ana Leturiak zuzenduko dituzten berrikuntza-proiektuetan parte hartu ahal izan dezaten.

Ikasleen aukeraketa irailean egingo da. Horretarako, ekintzen inguruko informazioa zabalduko da ikasleen artean. Era berean, GAL ohiko eskaintzaren barruan, hainbat plaza eskainiko dituzte Kontseilukideek, ikasleek Gradu Amaierako Lanak JSKJan burutu ahal izan ditzaten.

**5. Norberak lekarkeena.** Ez da ekarpen aipagarririk izan.

y tercer curso que pudiera tener interés en participar en los proyectos de innovación que está previsto arranquen bajo la coordinación de Ana Leturia y Juan Aldaz.

La selección del alumnado se realizará en septiembre. Previamente se desarrollará una campaña informativa. Igualmente, se acuerda que las personas que forman parte del Consejo de Dirección, incluirán en su oferta de TFG plazas específicamente ligadas a la actividad de la CJJS.

**5. Ruegos y preguntas.** No hay ningún tema adicional reseñable.

JUSTIZIA SOZIALAREN ALDEKO KLINIKA JURIDIKOA
JSKJ CJJS UPV EHU
CLÍNICA JURÍDICA POR LA JUSTICIA SOCIAL

**Izpta.- Fdo** Joseba Ezeiza Ramos
Justizia Sozialaren Aldeko Klinika Juridikoaren Idazkaria
Secretario de la Clínica Jurídica por la Justicia Social